

Euskarazko bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoez

Ane Odria

UPV/EHU

Laburpena

Lan honek euskarazko bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoak arakatzen ditu. Datibo argumentuen PS/DS izaera bikoitza kontuan hartuta, euskaraz datiboek bigarren mailako predikazioa onartzen ez dutela dioen orokorpena guztiz zuzena ez dela argudiatzen du, PSen jokatibidea izan ezin dezaketen datiboek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzen dutela azalduz. Orain arte uste izan denaren aurka, beraz, bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoez datibo argumentuei gabe, PSei —eta horrenbestez, PSen tankerakoak diren datiboek— eragiten dietela proposatzen da lan honetan.

0. Sarrera*

Euskaraz esan izan da datibo argumentuek ez dutela bigarren mailako predikaturik onartzen (Zabala 1993, 2003; Arregi & Molina-Azaola 2004; Oyharçabal 2010). Ez dira asko gai hau aztertu —edo are aipatu— duten lanak. Zabala (1993) da salbuespena, bera izan baita, nik dakidala behintzat, bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoak arakatu eta datibo argumentuez predikatzeke ezintasuna zeri zor zaion aztertu duen bakarra. Zabalaren iritziz, datibo argumentuek daramaten *-(r)i* markapena, egiturazko

* Arlo batean zein bestean euskalaritzan dihardugunok asko zor diogu Ibon Sarasolak urteetan egindako lanari. Ohore handia da, beraz, lan txiki honen bidez bere omenezko liburuan parte hartzea. Nire esker ona adierazi nahiko nieke Pablo Albizu, Beatriz Fernández eta Javier Ormazabali gaiaren inguruan izandako eztabaidengatik eta egindako iruzkin guztiengatik. Nirea da, jakina, lanak izan ditzakeen okerren erantzukizuna. Emaitza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez. Gainerakoan, lan hau ondoko instituzio eta ikerketa proiektuei esker idatzi ahal izan dut: Eusko Jaurjaritza (PRE 2013-2-515 doktore-aurreko beka eta IT665-13 ikerketa taldea), Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (FFI2011-26906 ikerketa proiektua) eta Europako Batzordea (EC FP7-SSH-2013-1 AThEME (613465) ikerketa proiektua).

kasu marka bat izan beharrean, postposizio bat da, eta Postposizio Sintagma (PS) baten barruan egonda, argumentu hauek ezin dute gauzatu bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko egiturazko harremana. Datibo markaren postposizio izaerak azalduko luke, beraz, argumentu hauen bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ezintasuna. Zabalak berak dioen moduan, gainera, arrazoiketa honek gainerako PSentzat ere balioko luke. Izan ere, euskaraz, munduko beste hainbat hizkuntzatan bezala, PSek ezin dute bigarren mailako predikazioa zilegiztatu.

Egitura arazleetak datibo araziak eta Markapen Bereizgarriko Osagarriak —ingelesez, *Differential Object Marking*, *DOM* deritzenak— izan dira orain arteko lanetan orokorpen hori hausten duten datibo argumentu bakarrik. Datibo hauek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko duten gaitasuna justifikatzeko, elkarri lotuta dauden bi argumentu eman dituzte Zabalak (1993) araziei begira eta Fernández & Rezac (2010, argitaratzeaz) eta Odriak (2012, 2015) DOM osagarriari begira. Alde batetik, euren konfigurazio sintaktikoa datiboz markatutako zehar osagarriena ez bezalakoa dela argudiatu dute. Datibo araziak subjektu gunean sortzen dira, eta DOM osagarriak osagarri zuzen gunean. Bestetik, araziek eta DOM osagarriek daramaten kasu marka egiturazkoa dela defendatu dute, eta hortaz, argumentu hauek ez direla beste zenbait datibo bezala PS baten barruan sortzen. Horrela, zehar osagarriekiko desberdina den konfigurazio zein kategoria sintaktikoarekin sortuta, espero izatekoa da argumentu hauek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko arazorik ez izatea.

Lan honetan, orain artean emandako bi salbuespen hauekin batera, bestelako datiboek ere bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko dutela azalduko dut. Euskarazko datibo argumentu batzuek —besteak beste, komunztadura galtzeari begira— PSen moduan joka dezaketen arren, badira portaera hori onartzen ez duten datiboak ere. Horietakoak dira, datibo araziez eta DOM osagarriez gain, jabe datiboak eta predikatu psikologikoetako datibo esperimentatzaileak (Albizu 2001, 2009, 2011; Rezac 2008b, 2009ab, 2011; Fernández 2010, 2011ab; Fernández & Landa 2009; Fernández, Ortiz de Urbina & Landa 2009; Fernández & Ortiz de Urbina 2010; Fernández & Sarasola 2010; Etxepare & Oyharçabal 2008abc, 2012; Etxepare 2014). Artikulu honetan, bada, orain arte uste izan denaren kontra, azken hauek ere bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko dutela erakutsiko dut. Ikusiko dugunez, PSen moduan joka dezaketen datibo argumentuak bakarrik dira bigarren mailako predikazioarekin batera ezin daitezkeenak.

Badirudi, beraz, komunztadurarik gabe agertzeari begira PSek bezala jokatzeke aukera duten datiboek PSen moduan jokatzen dutela bigarren mailako predikazioari dagokionez ere. Hori hala izanik, arestian aipatutako orokorpena, hots, datibo argumentuek bigarren mailako predikazioa onartzen ez dutela dioena, moldatu egin behar dela defendatuko dut. Murriztapen sintaktikoen PSei —eta hortaz, PSen moduan joka dezaketen datiboek— eragiten diete, ez datibo argumentuei orokorrean.

Azkenik, bigarren mailako predikazioari dagokionez datibo argumentu batzuek PS guztiek bezala jokatzek datiboen eratorpenezko analisi sintaktikoen alde egiten duela azpimarratuko dut. Eratorpenezko analisisiek datibo argumentuak sortez PSak direla, eta beraz, PSetatik eratoritzen direla argudiatzen dute (ikus, besteak beste, Ormazabal & Romero 1998, 2001, 2007, 2014; Albizu 2001, 2009, 2011; Albizu & Fernández 2006; Arregi 2003; Arregi & Ormazabal 2003). Hala, sortzezko gunerak berbera izateak zenbait datibok eta PSei bigarren mailako predikazioarekiko duten ezintasun bera izatea azalduko luke. Baita, ondorioz, zilegiztatzeak sortzezko guneari begiratzeko diola iradoki ere.

Artikulu hau ondoko lau ataletan egituratuko dut. 1. atalean, orain arteko lanetan euskaraz bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoez esan dena bildu eta berrikusiko dut. 2. atalean, murriztapen sintaktikoei PSen jokaera izan dezaketean datibo argumentuei —eta gainerako PSei— bakarrik eragiten dietela argudiatuko dut. 3. atalean, horrek eratorpenezko analisisien alde egiten duela, eta bigarren mailako predikazioaren zilegiztatzeak argumentuen sortzezko guneari erreparatzen diola proposatuko dut. Amaitzeko, 4. atalean, lanean zehar ateratako ondorio nagusien laburpena egingo dut.

1. Bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoak: lehen hurbilketa

1.1. *Bigarren mailako predikazioak ez ditu datibo argumentuak onartzen*

Bigarren mailako predikazioak aditzak adierazten duen gertaeran parte hartzen duen argumentuetako baten egoera edo ezaugarri bat deskribatzen du. Beheko (1) adibidean, esaterako, *kezkatuta* bigarren mailako predikatuak *Miren* perpausako subjektuaren egoera deskribatzen du —eta horregatik daukate biek, bigarren mailako predikatuak eta berau kontrolatzen duen argumentuak, azpi-indize bera—. (1) bezalako perpausetan predikatua bigarren mailakoa edo hautazkoa dela esaten dugu, predikazioak deskribatzen duen egoera edo ezaugarria ez duelako aditzak berak hautatzen, eta ondorioz, perpausak gramatikala izaten jarraitzen duelako predikaziorik ageri ez denean ere (2):

- (1) Miren_i kezkatuta_i esnatu da
- (2) Miren esnatu da

Bigarren mailako predikazioak, beraz, aditzaren argumentuetako baten egoeraren inguruko informazio gehigarria ematen digu, eta ezinbestekoa ez denez, bere agerpenak ez dio perpausaren gramatikaltasunari eragiten. (3) adibidean bezala, predikatua aditzak berak eskatzen duenean,

ostera, predikazioa lehen mailakoa edo azpikategorizatua dela esaten dugu:

- (3) Albiste horrek Miren_i *(kezkatuta_i) utzi du

Kasu honetan ere, *kezkatuta* predikatuak *Miren* perpauseko subjektuari buruzko egoera bat deskribatzen du, baina (1) adibidean ez bezala, predikatua bera agertzea ezinbestekoa da perpausa gramatikala izan dadin. Lan honetan lehen mailako predikazioa albo batera laga eta bigarren mailako predikazioari baino ez diogu erreparatuko, bigarren mailako predikazioak erakusten dituen murriztapen sintaktikoei, hain zuzen ere.¹

Euskaraz, gaztelania (Demonte 1987, 1988) edo ingelesa (Williams 1980; Rothstein 1983) bezalako beste hizkuntza batzuetan bezala, bigarren mailako predikazioa subjektu eta osagarri zuzenek —edo bestela esanda, erगतibo eta absolutibodun argumentuek— bakarrik zilegizta dezaketela esan izan da (4) bezalako perpausetan oinarrituta (Zabala 1993, 2003; Arregi & Molina-Azaola 2004; Oyharçabal 2010):

- (4) Mirenek_i Peruri_j liburuak pozik_{i/*j} laga dizkio

Goiko (4) adibidean ikus daitekeenez, *pozik* bigarren mailako predikatua *Miren* subjektuaz predika dezake, baina ez *Peru* helburu theta-roleko zehar osagarriaz. Gauza bera gertatzen da bestelako PSeekin ere. (5a) adibidean *gosetuta* bigarren mailako predikatua *ni* subjektuari buruz bakarrik predika dezake, eta ez *Mirenentzat* PS destinatiboari buruz. Halaber, (5b) perpausean *Peru* subjektua izan behar da *lotsatuta* dagoena, eta ez *Mirenen-gana* PS ablatiboa:

¹ Munduko beste hainbat hizkuntzatan bezala, euskaraz ere bigarren mailako predikazioak murriztapen semantikoak ditu. Mota honetako predikatua ezin dira, esaterako, egoera aditzekin (i) edo kontrolik gabeko subjektuak hautatzen dituzten aditzekin (ii) agertu (Zabala 1993, 2003):

- (i) *Peruk_i urduri_i daki bere etxeko helbidea
(ii) *Peruk_i urduri_i atsegin ditu matematikak

Horrez gain, bigarren mailako predikatua berezkoa ez den aldi baterako ezaugarri bat adierazi behar du, hau da, egoera mailakoa izan behar du nahitaez, eta ez izaki mailakoa (Zabala 1993, 2003) (iii):

- (iii) Liburuak_i merke_i/*interesgarri_i erosi ditugu

Bestalde, bigarren mailako predikazioak baditu murriztapen morfologikoak ere, ezin baitu, esate baterako, artikularekin agertu (iv) —gogoan izan euskaraz egoera mailako predikatua artikulurik gabe agertzen direla eta izaki mailakoak direnak, artikularekin (Zabala 1993, 2003; Artiagoitia 1997)—:

- (iv) Bi logela_i baino ez dira geratzen dira libre(*ak)_i

- (5) a. Nik_i afaria Mirenentzat_j gosetuta_{i/*j} gorde dut
 b. Peru_i Mirenengana_j lotsatuta_{i/*j} hurbildu da

Esan bezala, Zabala (1993: 413-414) izan da euskaraz datibo argumentuek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko duten ezintasunaren zergatia ikertu duen bakarra. Besteak beste, Williams (1980) eta Rothsteinen (1983) ildotik, ezintasun hori egiturazko arrazoiei egotzen die Zabalak. Bere ustez, datibo argumentuek daramaten *-(r)i* markapenak ez du egiturazko kasu marka bat islatzen, postposizio bat baizik.² Hau da, zehar osagarriak subjektu eta osagarri zuzenak bezala Determinatzaile Sintagma (DS) baten barruan sortu beharrean, PS baten barruan sortzen direla iradokitzen du. Horrela, PS bezala sortuta, postposizioaren islapen gorenak ez lieke utziko bigarren mailako predikatuarekiko egiturazko harremana gauzaten, eta predikazioa ezinezkoa izango litzateke.³ Lan honetan ez zaigu horrenbeste inporta egiturazko harreman hori zehazki zein mekanismoren bidez burutzen den. Zabalak dioenez, PSen tankerakoak direlako datorkie datibo argumentuei bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ezintasuna, eta horixe da geuri bereziki axola zaiguna. Era berean, datibo argumentuen portaera azaltzeaz gain, arrazoiketa honek gainerako PSen bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ezintasuna ere esplikatuko luke. (5)eko adibideetan ikusi dugunez, euskaraz PSek ere ezin baitute bigarren mailako predikazioa zilegiztatu.

1.2. *Datibo araziak eta DOM osagarriak salbuespen*

Datibo argumentuek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ez dutela dioten orokorpenarekin bat egin arren, Zabalak berak (1993, 2003) datibo araziak bestelako jokaera dutela aitortzen du. Horixe erakusten du beheko (6) adibide sortak; mendeko predikatua inakusatiboa (6a), inergatiboa (6b), iragankorra (6c) edo ditrantsitiboa (6d) izan, argumentu araziak *mozkortuta* bigarren mailako predikatua zilegiztatzeko du-eta.⁴

- (6) a. Haiek niri_i etxera mozkortuta_i sarrarazi didate
 b. Jonek Mireni_i tranpolinetik mozkortuta_i saltarazi dio

² Datibo argumentuen *-(r)i* marka berezko kasutzat ere har daitekeela iradokitzen du Zabalak (1993: 413).

³ Rothsteinek (1983) bezala, Zabalak bigarren mailako predikatuak eta bere subjektuak elkar m-komandatu behar dutela proposatzen du.

⁴ Ipar-ekialdeko hizkerak ez bezala, hego-mendebalekoek egitura arazleetak argumentu arazi biziduna datiboz marka dezakete mendeko predikatua iragangaitza denean ere (Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia 1989; Ortiz de Urbina 2003). Datibo arazia posible den egituren irudi orokorragoa ematearren hartu ditut kontuan hego-mendebaleko hizkeretako (6a) eta (6b)ko datuak.

- c. Jonek zuri_i kotxea mozkortuta_i gidarazi dizu
- d. Nik Joni_i Mireni mozkortuta_i musu bat emanarazi diot

Zehar osagarrien moduan datibo markapena izanagatik ere, argumentu arazien *-(r)i* markapena egiturazko kasu marka bat dela argudiatzen du Zabalak (1993: 268-269, 414-416, 447-449). Egitura arazleen portaera sintaktikoa azaltzeko, Zabalak, Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegiak (1989) proposatu-tako perpaus konplexuaren hipotesiarekin bat egiten du. Hipotesi honen araber-a, menpeko aditza —(6)ko adibideetan, *sartu*, *saltatu*, *gidatu* eta *eman*—*arazi* aditz nagusiari inkorporatzen zaio, eta bien artean predikatu konplexu bat osatzen dute. Behin predikatu konplexu hori eratutakoan, mendeko aditzaren argumentuak predikatu konplexuaren argumentu izatera igarotzen dira eta predikatu konplexuak berak erkatzen ditu perpauseko argumentu guztien kasuak. Honenbestez, sortzez mendeko aditzaren subjektua izan arren, argumentu araziak ere predikatu konplexutik jasoko luke datibo markapena. Bestela, predikatu konplexu hau osatuko ez balitz eta honek araziaren kasua erkatuko ez balu, menpeko aditza inakusatiboa izanda, araziak absolutibo markapena izango luke; eta inergatibo, iragankor edo ditransitiboa izanda, ergatiboa. Inkorporazio bidezko predikatu konplexuaren hipotesia onartuta, beraz, arazien *-(r)i* datibo marka ez litzateke sortzezko gunetik datorren postposizioa izango, menpeko aditzaren inkorporazioaren ostean erkatzen den egiturazko kasua baizik.⁵ Hori horrela, subjektu gunean eta DS baten barruan sortzen denez, araziaren eta bigarren mailako predikatuaren arteko egiturazko harremana ez luke inongo postposizioaren islapen gorenek oztopatuko.

Datibo markapena izan arren, DOM osagarriek ere bigarren mailako predikazioa zilegiztatzen dutela erakutsi dute Fernández & Rezac (2010, argitaratzeaz) eta Odriak (2012, 2015). Hego-mendebaleko zenbait hizkeratan —eta beti ere ahozko euskara ez-estandarrean—, gizaki eta zehaztuak diren osagarriak datiboz markatzen dira kanonikoki dagokien absolutiboaren orde-z. Horixe da, esaterako, (7)ko adibideetan gertatzen dena:

- (7) a. Zuk niri etxera ekarri didazu
- b. Nik zuri ikusi dizut
- c. Peruk Mireni uretara bota dio

Datiboz markatutako *niri* (7a), *zuri* (7b) eta *Mireni* (7c) argumentuak DOM osagarriak direla esaten dugu, gizaki eta zehaztuak izanda, era bereizgarrian markatzen direlako. Osagarri ez-kanoniko hauek osagarri zuzen zein zehar osagarriekin alderatu ostean, euren konfigurazio sintaktikoa osagarri

⁵ Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegiaren (1989) hipotesiarekin bat etorritik, Albizuk (2001), Duguinek (2013) eta Odriak (2015) ere argumentu araziaren datibo kasua egiturazkoa dela argudiatzen dute.

zuzenenaren tankerakoa dela ondorioztatu dute Fernández & Rezac (2010, argitaratzeaz) eta Odriak (2012, 2015). Osagarriak daraman *-(r)i* marka bera ere, ez da beste zehar osagarri batzuen izan daitekeen moduan postposizio bat, egiturazko kasu marka bat baizik (Odria 2012, 2015; Fernández & Rezac argitaratzeaz). Bi ezaugarri horiek kontuan hartuta —eta beti ere Zabalen arrazoiketari jarraituz—, ez da, beraz, harrizkoa osagarri hauek bigarren mailako predikazioa onartzea. Halaxe gertatzen da (8)ko adibideetan:

- (8) a. Zuk niri_i jendaurrean lotsatuta_i aurkeztu didazu
 b. Nik zuri_i pozik_i ikusi dizut

Esanak esan, lehen begiratuan behintzat badirudi euskarazko datibo argumentuek ezin dutela bigarren mailako predikazioa zilegiztatu. Datibo araziak eta DOM osagarriak dira orokorpen honen salbuespen bakarrak.⁶ Alabaina, bi hauen sortzezko konfigurazio zein kategoria sintaktikoa desberdinak dira gainerako zehar osagarriekiko, eta horrek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko duten gaitasuna justifikatuko luke.

2. Bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoak: uste baino murrizagoak

2.1. Datibo argumentuen PS/DS izaera bikoitza

Komunztadura da euskaraz DS eta PSak bereizten dituen aldagai nagusia; DSek aditz laguntzailean komunztadura markak eragiten dituzte, eta PSek aldiz, ez. Hori dela eta, gainerako DSek bezala aditz laguntzailean komunztadura eragiten dutenez gero, datibo argumentuak DStzat hartu izan dira orokorrean euskaraz (ikus, batez ere, Elordieta 2001). Nolanahi ere, badira hainbat testuingurutan komunztadura markarik gabe ager daitezkeen datiboak ere, eta alde horretatik, zentzuzkoa dirudi Zabalak (1993) dioen moduan —zenbait— datibo argumenturen *-(r)i* marka postposizio bat izatea.

Euskaraz datibo komunztadura ez da ergatiboarena edo absolutiboarena bezain ezinbestekoa, ipar-ekialdeko hizkeretan datibo argumentu batzuk komunztadura markarik gabe agertu daitezke-eta (Albizu 2001, 2009, 2011; Rezac 2008b, 2009ab, 2011; Fernández 2010, 2011ab; Fernández & Landa

⁶ Demontek (1987, 1988) argumentazio bera darabil gaztelaniazko zehar osagarriari zuzendutako bigarren mailako predikazioaren ezintasuna azaltzeko, eta gaztelaniaz ere argumentu arazien zein DOM osagarrien *a* preposizioa PSek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko duten ezintasunaren salbuespen direla azaltzen du. Demontek bi argumentu hauen *a* markapena preposizio faltsu bat dela esaten du —*dummy preposition*, bere hitzetan—, markapen honek ez baitu zenbait egituratan gainerako zehar osagarrien *a* markapenak bezala jokatzeko, egiturazko kasu batetik jokatzeko lukeen bezala baizik.

2009; Fernández, Ortiz de Urbina & Landa 2009; Fernández & Ortiz de Urbina 2010; Etxepare & Oyharçabal 2008abc, 2012; Etxepare 2014). Hizkera hauetako datibo komunztadura galera ez da, jakina, edozein motatako datiboekin gertatzen. Euskalariak azken urteotan argiro erakutsi duten moduan, interes datiboak, jabe datiboak eta datibo esperimentatzaileak ezin dira komunztadurarik gabe agertu. Komunztadura galera predikatu ditransitiboetako helburuekin —tar-tean onuradun eta kaltetunak—, inakusatiboetako mugimenduzko helburuekin, inergatiboetako absolutibo/datibo alternantziadunekin eta postposizio itxurakoekin baino ez da posible.⁷ Hauexek dira PS-tzat —edo gutxienez, PSen tankerakotzat— har daitezkeen datibo argumentu bakarrak. Gainerakoek DS jokabidea baino ez dute erakusten.⁸

Komunztaduraren auziarekin batera, izenburuetan adposizio bezala zein nominalizatuta agertzeko gaitasunari ere begiratu diote zenbait euskalarik datibo argumentuak DS ala PS kategoria sintaktikokoak diren eztabaidatzerakoan (Albizu 2001, 2009, 2011; Fernández 2011ab; Fernández & Sarasola 2010). Euskaraz PSak baino ezin dira agertu izenburuetan adposizio bezala edo nominalizatuta, eta datibo argumentuen artean ere komunztadura markarik gabe agertu daitezkeen horiek dira egitura hauetan agertu daitezkeen bakarrak. Komunztadura eta izenburuetako adposizio zein nominalizazioei begira PSeK bezala jokatu ahal izateak bereizten ditu, hortaz, datibo batzuk eta besteak.

Euskarazko bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoak arakatzerakoan, sekula ez da datibo argumentuen PS/DS izaera bikoitz hau kontuan hartu. Hala, batez ere predikatu ditransitiboetako helburu theta-rolako datiboari begiratuta, datibo argumentuek orokorrean bigarren mailako predikazioa onartzen ez dutela argudiatu izan da. Zabalak (1993, 2003), esaterako, (9)ko adibideak ematen ditu, Arregi & Molina-Azaolak (2004) (10)koa, eta Oyharçabalek (2010) (11)koa; denak ere helburu theta-rola erakusten duten datibodun zehar osagarriak.^{9,10}

⁷ Hego-mendebaleko hizkeretan ere, ipar-ekialdean PS moduan joka dezaketen datibo horiek dira *ari izan*, *egon*, *ibili* bezalako aspektu perifrasieta (Fernández 2011ab) eta datibo bikoitzeko egiturak saihesteko komunztadura markarik gabe ager daitezkeenak (Odria 2015).

⁸ PSeKiko duten antzekotasun sintaktikoagatik komunztadura eragiten duten datiboari *aplikatibozko datibo* ere deitu izan zaie eta komunztadura eragiten ez dutenei, *postposiziozko datibo* (Rezac 2008b, 2009ab; Etxepare & Oyharçabal 2008abc, 2012; Etxepare 2014). Lan honetan analisi sintaktiko jakinik proposatuko ez dudanez, nahiago izan dut horrelako terminoak erabili beharrean, datiboen kategoria sintaktikoari dagokion aldakortasuna deskribapen mailan bakarrik jasotzea.

⁹ Zehatzago izanda, onuraduntzat ere har daitezke (9a) eta (9c), eta kaltetuntzat (9b). Dena dela, ez zait iruditzen horrek datibo argumentu hauek helburu edo hartzaile makro-rolaren barruan sartzea eragotziko lukeenik.

¹⁰ *Mikeli ilea gaixorik erori zitzaion* ere txartzat jotzen du Zabalak (1993: 266), baina nik neuk zalantzak ditut perpaus honetako bigarren mailako predikazioa goiko (9) adibidekoena bezain ezinezkoa den, batez ere bigarren mailako predikatua datibo argumentuaren eskumata jarritz gero: *Mikeli gaixorik ilea erori zitzaion*.

- (9) a. *Mireni_i liburu bat urduri_i oparitu diogu [Zabala 1993: 255]
 b. *Joni_i multa bat edantza_i jarri diote [Zabala 1993: 265]
 c. *Haurri_i mila pezeta eman zioten sarituta_i [Zabala 1993: 265]
 d. *Ehiztariak basurdeari_i zauriturik_i jarraiki zitzaizkion [Zabala 1993: 266]
 e. *Peruk liburu bat oparitu zion bere alabari_i gaixorik_i [Zabala 2003: 445]
- (10) *Nik zuri_i umea mozkortuta_i emon dautsut [Arregi & Molina-Azaola 2004: 103]
- (11) *Joni_i mozkorrik_i hurbildu zitzaizkion lagunak [Oyharçabal 2010: 253]

Azaldu dugunez, baina, datibo argumentu guztiek ezin dute adibideo-takoek bezala PS portaera izan. Horregatik, orokorpenak benetan datibo argumentu guztiei eragiten diela frogatzeko, ezinbestekoa da PSen moduan joka ezin dezaketenek ere bigarren mailako predikazioa zilegiztatzan ez dutela erakustea. Izan ere, kontrakoa gertatuko balitz, aho batez onartu izan den orokorpena, hots, datibo argumentuek bigarren mailako predikazio onartzen ez dutela dioena, kolokan jarriko litzateke. Eta horrek murriztapen sintaktikoek datibo bako bako, PSei eta PSen moduan joka dezaketan datibo bako bakarrik eragingo lieketela esan nahiko luke. Ikus dezagun, bada, zer gertatzen den PS itxurakoak ez diren datibo horiekin.

2.2. *Datibo araziak eta DOM osgarriak ez dira salbuespen bakarrak*

Bigarren mailako predikazioa PSen modukoak ez diren bestelako datiboekin konbinatzeak arestian emandako orokorpenaren aurka egiten duela erakutsiko dut jarraian. Orain arte uste izan denaren aurka, PS jokabidea izan ezin dezaketan jabe datiboek (12) zein datibo esperimentatzaileek (13) ere bigarren mailako predikazioa onartzen dute:¹¹

- (12) a. Mireni_i ilea mozkortuta_i moztu diote
 b. Mendizaleari_i atzamarrak hoztuta_i izoztu zitzaizkio
- (13) a. Mireni_i mutil hori mozkortuta_i gustatzen zaio
 b. Mireni_i mutil hori mozkortuta_i interesatzen hasi zaio

¹¹ Zenbait hiztunentzat, (12) eta (13)ko perpausetan bigarren mailako predikatuak datibo argumentuaz predikatzea bigarren aukera baino ez da, eta kasu hauetan bigarren mailako predikatuaren subjektua absolutibo argumentua ere izan daitekeela esaten dute. Hiztun hauentzat naturalagoa da bigarren mailako predikatuak datibo argumentuaz predikatu behar badu honen eskumatarara agertzea. Dena dela, Zabalak (1993: 397) dioenez, euskaraz bigarren mailako predikatuak argumentu guztien eta aditz jokatuaren artean agertu behar du, eta beraz, goiko adibideetan ere hurrenkera neutro hori jasotzen ahalegindu naiz.

(12)ko datibo argumentuak jabetza erakusten duten horietakoak dira, jabe datibo deritzenak, hain zuzen.¹² Adibideotako datibo eta absolutibo argumentuen artean ezinbestereenduzko jabetza harremana dago, gorputz atalak izanda, jabearen —datibo argumentua— eta jabeagoaren —absolutibo argumentua— arteko harremana berezkoa eta banaezina baita. (12)ko adibideetan bildutako bi datibo argumentuak dira, beraz, jabe datiboak, euskaraz PSek bezala joka ezin dezaketen horietakoak (ikus, batez ere, Fernández 2010, 2011ab; Fernández & Landa 2009; Fernández, Ortiz de Urbina & Landa 2009; Fernández & Ortiz de Urbina 2010; Rezac 2008b, 2009ab; Etxepare 2014).¹³ (13)ko bi perpausetako datiboak, ostera, predikatu psikologiko inakusatiboetako esperimantatzaileak dira, predikatuak adierazten duen egoera psikologiko bat jasaten baitute.¹⁴ Era honetako datiboek ere ezin dute PS moduan jokatu, eta datuek erakusten dutenez, bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko gai dira (Albizu 2001, 2009, 2011; Rezac 2008b, 2009ab, 2011; Fernández 2010, 2011ab; Fernández & Landa 2009; Fernández, Ortiz de Urbina & Landa 2009; Fernández & Ortiz de Urbina 2010; Fernández & Sarasola 2010; Etxepare & Oyarçabal 2008abc, 2012; Etxepare 2014).¹⁵

Nik neuk, ez nuke esango kasualitatea denik orain arte datiboek bigarren mailako predikazioa onartzen ez dutela erakusteko eman izan diren (9), (10) eta (11) adibideetako datiboak PSek bezala joka dezaketen horietakoak izatea. Ezta aztertu berri ditugun (12) eta (13) adibideetakoak PSen moduan joka ezin dezaketen horietakoak izatea ere.¹⁶ Datibo argumentuen PS/DS izaera bikoitza kontuan hartuta, ez dirudi bigarren mailako predikazioaren

¹² Euskarazko jabe datiboen inguruan egin diren deskribapen zein analisi sintaktikoez gehiago jakin nahi duenak Etxepare (2003), Arregi (2003), Albizu (2009, 2011), Fernández (2010) eta Fernández & Ortiz de Urbina (2010) lanetara jo dezake.

¹³ Gaztelaniaz ere bigarren mailako predikazioa zehar osagarriekin zilegi ez dela onartu izan den arren, jabe datiboen kasua berezia dela aitortu izan da *A María, le operaron el quiste dormida* 'Mariari kistea lotan (zegoela) operatu zioten' bezalako perpausiei begira (Demonte & Masullo: 1999: 2466-2467).

¹⁴ Badirudi *gustatu* eta *interesatu* bezalako predikatu psikologikoez *mozkortuta* bigarren mailako predikatua baino ez dutela onartzen. Beharbada perpaus hauetako subjektuak aditzak adierazten duen gertaeraren gaineko kontrolik ez duten horietakoak direlako gertatzen da hau.

¹⁵ Fernández & Rezacek (argitaratzeaz: 15) predikatu inakusatiboetako datibo esperimantatzaileak bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoetatik kanpo daudela aipatzen badute ere, artikulua honetako datuek erakusten dutenaren kontra, jabe eta datibo esperimantatzaileek ere bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ezintasuna dutela esaten dute.

¹⁶ Interes edo datibo etikoa da —halakorik balego behintzat (Fernández 2010)— goi-datiboen artean bigarren mailako predikazioa onartzen ez duen bakarra (v):

(v) (*Niri)_i umeak_j gustura_{*i,j} jaten dit aspaldian

Dena dela, datibo etikoein bigarren mailako predikazioa ezinezkoa izatea datibo hauen ezagarrri bereziei egotz dakiekeela esango nuke. Datibo etikoak ezin du aditzaren argumentu baten erreferentziakide izan eta horri lotuta egon daiteke beharbada bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ezintasuna bera ere. Ageriko argumenturik izan ezean, bigarren mailako predikatuak ez bailuke isileko argumentu horrekiko egiturazko harremanik gauzaterik izango.

murriztapen sintaktikoez datibo guztiei eragiten dietenik, PSen moduan joka dezaketen horiek baitira predikazioa onartzen ez duten bakarrak. Hona hemen, (9), (10) eta (11)ko helburu datiboek bezala tankera honetako bestelako datiboek ere bigarren mailako predikazioa onartzen ez dutela berresten duten adibide gehiago (14):

- (14) a. $Peru_i$ $amari_j$ berria arduratuta $_{i/*j}$ eman dio
 b. $Peru_i$ $Garaziri_j$ haserre hurbildu $_{i/*j}$ zaio
 c. $Jonek_i$ $ingurukoei_j$ laguntza urduri $_{i/*j}$ eskatu die
 d. $Peru_i$ $Mireni_j$ tontotuta $_{i/*j}$ begirutzen dio

(14a) adibidean, *Peru* da *arduratuta* dagoena, eta ez *ama*, helburu theta-rola duen zehar osagarria. (14b) perpausean ere *Peru* da *haserre* dagoena, eta ez *Garazi*, predikatu inakusatiboko mugimenduzko helburua. Halaxe gertatzen da (14c) adibidean ere, *urduri* bigarren mailako predikatuak, perpauseko subjektua baino ezin baitu modifikatu, eta ez *ingurukoei* iturburu theta-roleko zehar osagarria. Azkenik, datibo/absolutibo alternantziadun *begiratu* aditzarekin osatutako (14d) perpausak ere jokabide bera erakusten du, *tontotuta* dagoena *Peru* baita, eta ez *Miren*.¹⁷ Badirudi, beraz, bestelako ezaugarriei begira PSek bezala jokatzeko duten datiboek PSen moduan jokatzeko dutela bigarren mailako predikazioari dagokionez ere. Gauza bera gertatzen da DS bezala bakarrik joka dezaketen datibo horiekin ere, gainerako DSen moduan bigarren mailako predikazioa zilegiztatzen baitute.

3. Bigarren mailako predikazioa, datiboak eta PSak

3.1. Murriztapen sintaktikoez PSei eragiten diete

Artikuluaren zehar emandako datuek erakusten dutenez, bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoez datibo guztiei eragin beharrean, PS bezala agertzeko gaitasuna duten horiei baino ez diete eragiten. Hori dela eta, orain arteko orokorpena moldatu egin behar dela azpimarratuko nuke: bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ezintasunak PSei —eta beraz, PS bezala joka dezaketen datiboak— eragiten die, eta ez datibo guztiei.

¹⁷ (12) eta (13) adibideekin zalantzak adierazten dituzten hiztunek ez dute inolako zalantzarik (14)ko adibideak interpretatzeko eskatzen zaienean. Adibide hauetan datibo argumentuak sekula ezin du bigarren mailako predikatua kontrolatu, ezta predikazioa datiboaren eskumatera jarrita ere. Goiko (14a) adibidean hitz ordena aldatuta ere, bigarren mailako predikatuek ezin du datibo argumentua modifikatu (vi):

(vi) $Jonek_i$ $amari_j$ arduratuta $_{i/*j}$ eman dio berria

Zabala (1993, 2003), Arregi & Molina-Azaola (2004) eta Oyharçabalek (2010) euren adibideetan bestelako jokabidea duten datibo argumentuak erabili izan balituzte, aterako luketen orokorpena ere bestelakoa izango litzateke. Ikertzaile hauek emandako adibideetan PSen moduan jokatzten duten datiboak baino ez dira agertzen, eta horrek bigarren mailako predikazioaren deskribapena lausotu egin duela esango nuke. PS jokabidea erakusten duten datiboetan bakarrik oinarritzeak bigarren mailako predikazioak datibo argumenturik onartzen ez duela dioen orokorpen okerrera eraman ditu gaia landu duten euskalariak. Datiboek izan dezaketen PS/DS izaera bikoitza kontuan hartzeak, baina, garbi lagatzen du murriztapena ez dela datibo argumentuena, PSena baizik. Hori hala ez balitz, ez genuke-eta datibo batzuen eta besteen artean alderik izango bigarren mailako predikazioa zilegiztatzerakoan.

Bigarren mailako predikazioak erakusten duen asimetria ez da, hortaz, subjektu eta osagarriekin posible izatea eta datiboz markatutako zehar osagarriekin ez. Asimetria argumentua sortzez DS edo PS izatean datza, eta alde horretatik, Zabalaren (1993) intuizioa bide zuzenetik doala aitortu nahiko nuke —nahiz eta Zabalak berak ez duen proposamena PSen moduan jokatzten duten datiboetara bakarrik mugatzen—. Zabalaren ustez, PS izatek datorkie zehar osagarriei bigarren mailako predikazioa onartzeko ezintasuna, eta geuk ere datibo batzuen ezintasuna izatekotan ere PSekiko loturak eragindakoa dela ikusi dugu.

Datiboen PS/DS izaera bikoitza konfigurazio sintaktikoarekin ere lotu izan da euskaraz. PS jokaera duten datiboak absolutibo argumentua baino beherago agertzen dira eratorpen sintaktikoan, eta PS jokaera ez dutenak, aldiz, gorago. Horregatik deitu izan zaie PS tankerakoei *behe-datibo* eta besteei *goi-datibo* (Fernández 2010, 2011ab; Fernández & Landa 2009; Fernández, Ortiz de Urbina & Landa 2009; Fernández & Ortiz de Urbina 2010; Fernández & Sarasola 2010). Bigarren mailako predikazioari begira argumentuen konfigurazio sintaktikoa gabe, kategoria sintaktikoa da inporta duena —PS ala DS izatea, alegia—, eta beraz, oraingo honetan ez ditut erabili datiboen konfigurazio sintaktikoari erreferentzia egiten dioten goi- eta behe-datibo bezalako terminoak. Dena dela, bada datiboek eratorpen sintaktikoan hartzen duten egiturazko guneari lotuta aipatu nahiko nukeen kontu bat ere. Oso modu zabalean bada ere, euskarazko goi-datiboak beste hizkuntza batzuetako goi-aplikatiboekin eta behe-datiboak behe-aplikatiboekin parekatuta, euskarazko datuek erakusten dutena Pyllkänenen (2002/2008) proposamenarekin bat datorrela iradoki nahiko nuke. Pyllkänenek (2002/2008) goi-aplikatiboek, behe-aplikatiboek ez bezala, bigarren mailako predikazioa onartzen dutela defendatzen du. Eta hein batean bederen, euskaraz ere antzera gertatzen dela esan dezakegu, behe-datibotzat ditugun horiek baitira bigarren mailako predikazioa zilegiztatzen ez duten datibo argumentu bakarrak. Lanean zehar emandako datuak beste era batera deskribatuta, beraz, bigarren mailako predikazioak goi- eta behe-dati-

boak bereizten dituela ere esan dezakegu, Pylkkänenen proposamenarekin nolabait bat eginda.¹⁸

3.2. *Datiboen eta PSen arteko lotura*

Euskaraz bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoek PS guztiei eta hala joka dezaketen datibo argumentuei bakarrik eragiteak gutxienez bi ondorio dakartzala azpimarratu nahiko nuke.

Batetik, Ormazabal & Romerok (2010: 220-222) argudiatzen duten moduan, datiboren eta PSen arteko lotura indartzeak lotura horretan oinarritzen diren eratorpenezko analisisien alde egiten du, analisi hauek datibo argumentua PS batetik eratortzen dela aldarrikatzen baitute (ikus euskarazko datiboen eratorpenezko analisisietarako, Ormazabal & Romero 1998, 2003, 2014; Albizu 2001, 2009, 2011; Albizu & Fernández 2006; Arregi 2003; Arregi & Ormazabal 2003). Euren hitzak geurera ekarriz, ez dirudi kasualitatea denik bigarren mailako predikazioa onartzen ez duten datiboek PS jokabidea posible izatea eta PSek orokorrean ere bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko ezintasuna izatea. Horrek datibo hauek sortzez behintzat PS izan daitezkeela iradokitzen du, eta horixe da eratorpenezko analisisiek proposatzen dutena, hain zuzen. Nola azaldu, bestela, itxuraz berdinak diren datibo argumentuen artean bigarren mailako predikazioari dagokionez batzuk eta bestek kontrako jokaera erakustea zenbait datibok eta PSek oinarrian egitura bakarra dutela onartu gabe? Guztiak datibo argumentu izan arren, PS bezala jokatu ahal izatean dago bereizketaren gakoa, eta horrek, Bakerrekin (1997: 86-87) bat eginez, PSen portaera izan dezaketen datiboek sortzez PSen konfigurazio sintaktiko bera izan behar dutela erakusten du. Horrez gain, Marušič, Marvin & Žaucerrek (2004) erakutsi duten moduan, badira behe-aplikatiboen pareko diren argumentuekin bigarren mailako predikazioa onartzen duten hizkun-

¹⁸ Euskaraz jabe datiboa da Pylkkänenen goi- eta behe-aplikatiboen banaketarekin bat egiten ez duen datibo bakarra. PSen moduan jokatzeko duen ezintasunagatik goi-datibotzat hartu bada ere, Pylkkänenek behe-datibotzat hartzen du —baita Pylkkäneni jarraituz Oyharçabalek (2010) ere—. Ikusi dugunez, ostera, bigarren mailako predikazioaren irizpideak euskarazko jabe datiboa DS jokabidea dutenetakoa dela erakusten du —goi-datiboa, alegia—, bigarren mailako predikazioak ez baitauka datibo argumentua zilegiztatzeko inolako ezintasunik. Halaxe erakusten dute beheko beste adibide hauek ere:

- vii. Niri_i belauna anestesiatuta_i, operatu zidaten
- viii. Umeari_i txupetea negarrez_i, kendu diote

Jabe datiboak bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeak PS bezala jokatzetik ez duela berresten du. Hori horrela, Albizuren (2009 2001) proposamenaren kontra ere egiten dute (vii) eta (viii)-ko adibideek. Albizuk jabe datiboak behe-datiboen artean multzokatzeko arrazoiak daudela esaten du datibo argumentu hauek PS batetik eratortzen direla iradokiz. Baina, hori hala balitz, ezin izango lukete bigarren mailako predikazioa zilegiztatu, eta ez da hori lan honetan emandako datuek islatzen dutena.

tzak ere —hizkuntza eslaviarrak, esaterako—. Ormazabal & Romerok (2010: 220-222) hizkuntza hauei begira dioten bezala, garrantzitsua da behe-datiboak eta PSak beti batera doazela azpimarratzea; behe-aplikatiboetan bigarren mailako predikazioa onartzen duten hizkuntzek PSetan ere onartzen dute, eta behe-aplikatiboetan bigarren mailako predikazioa onartzen ez dutenek ez dute PSetan ere onartzen. Behe-aplikatiboek PSekiko duten lotura onartu gabe zaila da inondik ere eratorpenezko analisiek berez azaltzen duten korrespondentzia hau azaltzea.

Bestetik, eta behin eratorpenezko analisiekin bat eginda, bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoek PS guztiei eta PS itzurako datiboei bakarrik eragiteak zilegiztatzeak argumentu egiturari begiratzen diola iradokitzen du. Ormazabal & Romerorekin (2010: 221-222) bat eginez, zenbait datiboren eta PSen arteko lotura azaltzeko, bigarren mailako predikazioaren zilegiztatzeak sortzeko guneari begiratu behar diola proposatu nahiko nuke, behin eratorpen sintaktikoan kasua erkatzeko mekanismoak abian jarrita, PSetatik eratorzen diren datiboek gainerako datiboekin bat egiten baitute. Bigarren mailako predikazioak sortzeko guneari erreparatuko ez balio, harrigarria izango litzateke datibo argumentuen artean dagoen aldakortasuna aurkitzea.

4. Ondorioak

Lan honetan, euskaraz datibo argumentuek bigarren mailako predikazioa onartzen ez dutela dioten orokorpena guztiz zuzena ez dela argudiatu dut. Datibo araziekin eta DOM osagarriekin batera PSen moduan joka ezin dezaketen bestelako datiboek ere —jabe eta datibo esperimantatzaileek— bigarren mailako predikazioa onartzen dute. Horrek bigarren mailako predikazioaren murriztapen sintaktikoek datibo argumentuei gabe, PSei —eta bide batez, PSen tankerakoak diren datiboei— eragiten dietela erakusten du. Orobat, baita zenbait datibok PSekiko duten antzekotasuna eta antzekotasun hori oinarriztat duten datiboen eratorpenezko analisiak sendotu ere.

Aipamenak

- Albizu, Pablo. 2001. «Datibo sintagmaren izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu». In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta konmutaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: UPV/EHU. 49-69.
- Albizu, Pablo. 2009. «Construcciones inacusativas con dativos posesivos y dativos de interés en vasco: un análisis derivacionalista». *Seminario de Lingüística Teórica*. CSIC (Madrid).
- Albizu, Pablo. 2011. «Micro-variación en las construcciones inacusativas de DAT posesivo del euskera». *Wedisyn's second workshop*. Universitat de Barcelona.

- Albizu, Pablo & Beatriz Fernández. 2006. «Licit and illicit ERG-DAT pairings». In B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Bilbo: UPV/EHU. 69-96.
- Arregi, Euridice. 2003. «On Dative Alternations in Basque». eskuizkribua, UPV/EHU.
- Arregi, Euridice & Javier Ormazabal. 2003. «Aditz ditransitiboen barne-egitura». In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari buruzko eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker-14 (I)*. Bilbo: Euskaltzaindia. 119-136.
- Arregi, Karlos & Gainko Molina-Azaola. 2004. «Restructuring in Basque and the Theory of Agreement». In G. Garding & M. Tsujimura (arg.), *Proceedings of WCCFL 23*. Somerville, Mass.: Cascadilla Press. 101-114.
- Artiagoitia, Xabier. 1997. «DP Predicates in Basque». In A. Taff (arg.), *Washington Working Papers in Linguistics 15*. 161-198.
- Baker, Mark. 1997. «Thematic Roles and Syntactic Structure». In L. Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*. Kluwer: Dordrecht. 73-137.
- Demonte, Violeta. 1987. «C-command, Preposition and Predication». *Linguistic Inquiry 18*. 147-157.
- Demonte, Violeta. 1988. «Remarks on Secondary Predicates: C-command, Extraction and Reanalysis». *The Linguistic Review 6*, 1-39.
- Demonte, Violeta & Pascual Masullo. 1999. «La predicación. Los complementos predicativos». In I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa Calpe, RAE. 2461-2524.
- Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia. 1989. «Inkorporazioa perpaus kausatiboetan». In P. Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara. VII. Udako Ikastaroak*. Donostia, UPV/EHU. 87-119.
- Duguine, Maia. 2013. *Null arguments and linguistic variation: a minimalist analysis of pro-drop*. Doktore tesia, UPV/EHU & Université de Nantes.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- Etxepare, Ricardo & Bernard Oyharçabal. 2008a. «Dative structures in standard and north-eastern Basque». *Licensing conditions at the interface. XXVI Uda Ikastaroak*. Donostia.
- Etxepare, Ricardo & Bernard Oyharçabal. 2008b. «Locational datives and dative agreement in the Eastern Dialects of Basque». *European Dialect Syntax Meeting III*. Venezia.
- Etxepare, Ricardo & Bernard Oyharçabal. 2008c. «Leku-datiboa ekialdeko zenbait hizkeratan». *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskarari eta euskal testugintzan*. IKER (Baiona).
- Etxepare, Ricardo & Bernard Oyharçabal. 2012. «Datives and adpositions in north-eastern Basque». In B. Fernández & R. Etxepare (arg.), *Variation in datives: a micro-comparative perspective*. Oxford: Oxford University Press. 50-95.
- Etxepare, Ricardo. 2014. «Contact and Change in a restrictive theory of parameters». In C. Picallo (arg.), *Parameters and Linguistic Variation*. Oxford: Oxford University Press. 108-139.
- Fernández, Beatriz. 2010. «Goi-datiboak eta are goragokoak: jabe datiboak eta datibo hunkituak vs. datibo etikoak». *Gogoia 10* 1-2. Donostia: UPV/EHU. 1-20.

- Fernández, Beatriz. 2011a. «Basque dialectal and pan-dialectal evidence in favor of high and low datives». *Wedisyn's second workshop*. Universitat de Barcelona.
- Fernández, Beatriz. 2011b. «Goi- eta behe-datiboak eta Datibo-komuntaduraren murriztapena: ipar-ekialdeko hizkerak eta euskara estandarra». I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. ASJU LXIX. UPV/EHU. 37-63.
- Fernández, Beatriz & Josu Landa. 2009. «Datibo komuntadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsintax». *Lapurdum* 13, 159-181.
- Fernández, Beatriz, Jon Ortiz de Urbina & Josu Landa. 2009. «Komuntadurarik gabeko datiboen gakoez». In R. Etxepare, R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre*. ASJU XLIII. 352-380.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2010. *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHU.
- Fernández, Beatriz & Ibon Sarasola. 2010. «*Marinelei abisua*: izen ondoko datibo sintagmak izenburuen syntaxian». *Lapurdum* 14, 55-75.
- Fernández, Beatriz & Milan Rezac. 2010. «Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea: *ari nai diyot* eta *kanta egin nazu* bidegurutzean». In B. Fernández, P. Albizu, & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*. ASJU LII. Bilbo: UPV/EHU. 113-149.
- Fernández, Beatriz & Milan Rezac. Argitaratzeaz. «Differential Object Marking in Basque varieties». In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam: John Benjamins.
- Maružič, Frank, Tatjana Marvin & Rok Žauker. 2004. «Depictive Secondary Predication with no PRO». eskuizkribua, Stony Brook Univ., Univ. of Ljubljana & Univ. of Ottawa.
- Odría, Ane. 2012. *What lies behind Differential Object Marking: a Basque dialect survey*. Master Tesia, UPV/EHU. In P. Salaburu, P. Goenaga & I. Sarasola (arg.), *Sareko Euskal Gramatika* [http://www.ehu.es/seg/_media/morf/5/2/1/9/sak/aneodriatesia.pdf]
- Odría, Ane. 2015. «Differential Object Marking and the nature of dative case in Basque varieties». *Linguistic Variation* 14-2. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins. 288-316.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 1998. «On the syntactic nature of the Me-lui and the Person Case Constraint». *ASJU* 32.2. 415-433.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2001. «A brief description of some agreement restrictions». In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta komuntaduraren gainean. On case and agreement*. Bilbo: UPV/EHU. 215-241.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2007. «Object agreement restrictions». *Natural Language and Linguistic Theory* 25, 315-347.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2010. «The derivation of dative alternations». In M. Duguine, S. Huidobro & N. Madariaga (arg.), *Argument Structure and Syntactic Relations from a Crosslinguistic Perspective*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins. 203-232.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2014. «Basque ditransitives: evidence for a derivational analysis». XXXIII Uda Ikastaroak / XXVI Europar Ikastaroak, UPV/EHU. Donostia, ekainak 18-19.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. «Causatives». In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. 592-607.

- Oyharçabal, Bernard 2010. «Basque ditransitives». In M. Duguine, S. Huidobro & N. Madariaga (arg.), *Argument structure and syntactic relations: A cross-linguistic perspective*. Amsterdam: John Benjamins. 233-260.
- Pylkkänen, Liina. 2002/2008. *Introducing arguments*. Cambridge / London: MIT Press.
- Rezac, Milan. 2008a. «Phi-Agree and theta-related Case». In D. Harbour, D. Adger & S. Béjar (arg.), *Phi-theory: phi-features across interfaces and modules*. Oxford: Oxford University Press. 83-130.
- Rezac, Milan. 2008b. «The syntax of eccentric agreement: The Person Case Constraint and Absolutive Displacement in Basque». *Natural Language and Linguistic Theory* 26, 61-106.
- Rezac, Milan. 2009a. «Person restrictions in Basque intransitives». *Lapurdum* 13, 305-322.
- Rezac, Milan. 2009b. «On the unifiability of repairs of the Person Case Constraint: French, Basque, Georgian, and Chinook». In R. Etxepare, R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre. ASJU XLIII: 1-2*. 769-790.
- Rezac, Milan. 2011. *Phi-features and the modular architecture of language*. Springer: Dordrecht.
- Rothstein, Susan. 1983. *The syntactic forms of predication*. doktore tesia, MIT.
- Zabala, Igone. 1993. *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean (euskararen kasua)*. doktore tesia, UPV/EHU.
- Zabala, Igone. 2003. «Nominal predication: copulative sentences and secondary predication». In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 426-446.
- Williams, Edwin. 1980. «Predication». *Linguistic Inquiry* 11, 203-238.